



BILDUNMA BAT

Prozedurak
Aholkuak
Ikasketak



Eskolako espazioen eraldaketa parte-hartzailerako proposamena, aniztasuna eta genero berdintasuna bultzatzen dituena



*Irudiko eduki osoa duen liburua erosteko egizu klik**

BILDUMA BAT. PROZEDURAK, AHOLKUAK, IKASKETAK

EDIZIOA

TIPI. SAN MAMES ZUMARKALEA 23,
SOLAIRUARTEA 48010 BILBAO
WWW.TIPIGARA.CO

EGILEAK

ANE ABARRATEGI ZAITEGI
MANUELA ABASOLO KRUG
ITSASO LARRAMENDI ELEXGARAY
MADDI TEXEIRO TARAZAGA
[TIPI]

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

MIKEL SERNA BERMEJO

ITZULPENAK ETA HIZKUNTZA-ORRAZKETA

TRADEBI

INPRIMATEGIA

LABORATORIO PARA EL ARTE BY ESTUDIOS DURERO

LEGE GORDAILUA: BI-744-2019

ISBN: 978-84-09-11795-6

LEHENENGO EDIZIOA, 2019

CREATIVE COMMONS.

AITORTU-EZKOMERTZIALA-PARTEKATUBERDIN 4.0

INTERNACIONAL LICENSE.

LIBURU HAU EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA
SAILAREN DIRU LAGUNTZAREKIN ARGITARATU DA.

Bilbon ezarritako kooperatiba gara TIPI, jakintza arlo anitzeko talde batek osatutakoa.

Badaukagu ia zortzi urteko ibilbidea, eta denbora tarte horretan, erakunde eta pertsona-talde anitzekin aritu izan gara lanean, neurri batean edo bestean eraldaketa soziala xede duten proiektuak garatzen.

Diseinu lanetan aritzen gara batik bat, diseinua modu zabalean ulertuz, eta zerbitzu, espazio, programa eta politiken zehaztupenerako erabiliz. Kultura-bitartekaritza proiektuak ere sustatzen ditugu.

Gure lanaren asmoa, beraien etorkizuna eratzeko gai izango diren komunitate sortzaile eta autonomoak eraikitzen laguntzea da.

Hau dela eta, gure lan egiteko modua parte-hartzailea da –tarteetan dauden pertsona eta eragileen inplikazio aktiboarekin, behetik gorako logikari jarraituz–, eta ideia, metodologia eta egiteko modu berriak bilatzen eta erabiltzen saiatzen gara. Beste-lako eragileekin nahasten gara, esperimendatzen dugu...

Hau guztia da gure izaeraren ardatza.

T
I
P
I

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Edozein negozio-eskolatan, *zeinahi proiektu errentagarria izan dadin, 'inbertsiorik txikiena, etekinik handiena'* formula aplikatu behar zaiola irakatsiko dizute. Askok tentsio historikoa sentitzen dugu adierazpen horrekin. Zalantzarik gabe, proiektuak jasangarriak (eta horretarako, errentagarriak) izan daitezela behar dugu, baina ez ekonomikoki bakarrik. "Inbertitutako" kemenari dagokionez ere errentagarriak izan daitezela behar dugu, hots, guretzat erronka motibatzaileak eta pozgarriak izan daitezela eta horien ingurunea eta testuingurua aldatzeko gaitasun nabarmena eduki dezatela.

Horregatik guztiz bat nator TIPlren egiteko moduekin, proiektuak etengabe aldatzen diren eta bizirik dauden zerbaitzart hartzen dituztelako. Eta, batez ere, ELKARTOKIekin, bere berzehaztapenean parte hartu baitut eta harro eta eskerdun sentitzen naiz.

'Berzehaztapen' diozu? ERNE!!!!

Proiektu berean gehiegizko inbertsioa eta errentagarritasun galera gertatzeko arriskua!!

Eta bai, baliteke.

ELKARTOKI etengabe aldatzen ari den prozesu horietako bat da. Ekimen organikoa eta pozgarria da, edizio bakoi-

tzean TIPlri galdera eta erronka berriak eransteko aukera ematen diona, hortaz, esperientziaren eskutik ikasteko eta eredu hobetu eta sofistikatze aukera ere:

Nola sor genezake eskolako jolastokia ikasleekin batera? Eta, espazio eta azpiegituretan aldaketa sortzeaz gain, elkarrekiko sorkuntza horrek nola alda litzake eskola barruko pertsonen arteko harremanak?

Horrela, beste subjektibotasun eta egiteko moduak dakartzan artista baten partaidetza duen prozesua eraikiko dute.

Nola lortu prozesu horrek ikastetxeen barruan dimentsio orokorragoa izan dezan? Zer behar du proiektuak eskolaren partaide diren guztiek horretan parte har dezaten?

Eta programa birpentsatuko dute, elkarrekiko sorkuntza prozesuan eskolarekin loturiko beste eragile batzuk (zuzendaritza, administrazioa eta familiak, besteak beste) txertatu eta tartean sartzeko.

Nola hautsi eragile batzuen dinamika erreaktiboak eta estereotipatuak eta nola sustatu

partaidetza proaktiboagoa? Nola lortu pertsona guztiek erantzunkideki parte har dezaten?

Eta proiektuari ekin aurretik, barnetegi bat sustatuko dute, prozesuaren azken helburuak argitzeko; eragile guztien rola, zereginak eta ardurak ondo zehazteko, eta parte-hartzaileen gidari eta lagungarri izango diren jarraibideak jartzeko.

Nola bilaka daiteke Elkartoki askotariko beste prozesu batzuen erakusbide izango den kasu praktikoa?

Eta aldi berean beste prozesu bat garatuko dute, pertsona jakintsu batzuek parte hartuz, orain esku artean dituzun edukiak gorpuzteko.

Egiteko modu hori berresten dut, prozesuak garatzeko modu hori, zabalak, partaidetzakoak, inklusiboak eta askotarikoak izateko ekinbidea eta ardura; muina, etikak edo helburuak begien bistatik galdu gabe. Proiektuen jasangarritasuna lortzeko asmoari eusten diot, horiek baliotsu egiten dutenari arreta jartzeari utzi gabe.

Eta zalantzarik gabe, TIPIk ekiteko daukan erarekin bat egiten dudala berresten dut. Prozesuetan topo egiten eta gure jardunean ikasten eta hazten jarrai dezagun.

Txelu Balboa, ColaBoraBora-n esploratzaile*

ZELAN
ERABILI

Esku artean duzuna ez da ohiko gidaliburu bat, ezta erabilera-eskuliburu bat edo hitzez hitz bete beharreko argibide batzuk ere. Liburu honek hainbat jarraibide eta tresna bildu ditu, gure ustez, baliagarriak izan daitezkeelako hezkuntza-inguru bat modu parte-hartzailean eraldatzerakoan. Horrelako abentura bati ekiteko modua izan daiteke eta abentura horretan bidelagun izan daiteke, jakin badakigulako bidea nekeza izan daitekeela; era berean, adibide izan daiteke antzekotasunak dituzten beste prozesu batzuetara estrapolatzeko; edo azken finean, ELKARTOKIri buruz gehiago jakiteko modua besterik ez.

Bi ataletan dago banatuta liburua: lehenengoaren oinarria ELKARTOKI abiarazi zenetik geureganatutako ezagutza da. Atal horretan, proiektua zertan datzan azaltzen da eta, aldi berean, proiektuaren “Iturri Kodea” aurkezten da, hots, gure ustez, antzeko prozesu batean kontuan hartu beharreko gaiak, urratsak eta baldintzak, trebetasunez eta huts eginez ikasitakoaren gainean eraiki ditugunak.

Bigarren zatian, lagungarri, aholku edo ohartarazpen batzuk bildu ditugu, prozesu horien partaide direnentzat eta parte hartzen dutenentzat: ikasleak (prozesuaren partaide nagusiak eta hartzaileak), eskola-komunitateko gainerako kideak (bai ikastetxeetako langileak eta bai familiak) eta bitartekariak (prozesuan parte-hartzen duten ikastetxetik kanpoko eragileak, hala nola, sortzaileak, artistak, kultur bitartekariak eta diseinugileak).

Edukiaren ardatza, hortaz, prozesuan zehar pertsonak eta eragileak aurre egin behar izaten dieten gai edo zalantza sorta dira. Horiek guztiak, arte, bitartekaritza, diseinugintza, hezkuntza, eskola-antolaketa eta herritarren partaidetzako aditu

batzuekin identifikatu eta garatu ziren, eta hurrengo atalean laburtu dira, eskema beraren arabera: gatazka posiblearen jatorria, horri aurre egiteko estrategiak, arriskuak eta horiei ekiteko tresnak.

Atal horrek bi zeregin ditu: alde bate-tik, proiektura iritsiko den pertsona bakoitzak, bere lekutik, egokituko zaion zereginarekin loturiko informazio baliagarria eskura dezan. Bestetik, esku hartzen duten gainerako eragile-en zeregina hobeto ulertzeko baliagarri izan dadin.

Ikasleei (edo parte-hartzaileei) bideratutako atala gainerako atalen desberdina da. Jolastokia aldatzeko bideari buruzko kontakizun moduan aurkeztu dugu eta aparteko liburuxka batean azaldu dugu ikasleek euren kabuz erabili ahal izateko.

Egiteko modu berriekin esperimintatzea zorabiarria izan daiteke, baina benetan merezi du, eta liburu honek hori egiteko adorea eman dezala eta lagungarri izan dadila nahi dugu.

Espero dugu guk adina goza deza-zuela bidaiaz.



AZALPENA

ELKARREKIN EGOTEKO TOKIA

Jolastokia da ume askok bizi eta esperimendatzen duten lehendabiziko espazio publikoa, eta hori garrantzi handiko espazioa izan arren, orokorrean bai jolastokiak, bai bestelako espazio komunak, ez dira modu egokian diseinatu eta pentsatu. Gune gogor eta estandarizatuak izan ohi dira; umeen eta eskola-komunitatearen nahiak eta beharrak islatzen ez dituzten espazio arrotzak.

Toki horien ezaugarri fisikoek, kudeaketa-ereduek eta bien bitartean, bertan gailentzen diren erabilerek, umeen jarrera eta portaerei nabari eragiten diete. Izan ere, espazio horien izaerak maiz gatazka eta arazo zehatzak sortzen ditu: jolas eta erabilera batzuek beste batzuek baino garrantzi handiagoa hartzen dute, espazioaren erabileran eta banaketan genero-hierarkiak sortzen dira eta ez dira kalitatezko harremanak eta esperientziak gertatzen.

Problematika hori lantzeko nahiarekin, eskolako jolastokien eta espazio komunaren konfigurazioan eta dinamiketan esku hartzea bilatzen duen programa abian jarri zen 2014. urtean. Horretan, diseinua eta sormena lantzeko tailerren bitartez, ikasleek erabilera berriak edota esku-hartzeak asmatu eta eraikitzen dituzte.

ELKARREKIN EGOTEKO TOKIA

ESPAZIOAREN ERALDAKETA, HELBURUA ETA AITZAKIA ALDI BEREAN

PAUSOZ PAUSO BURUTZEN DEN PROZESUA

HAUSNARKETA, SORKUNTZA ETA ELKARRIZKETARAKO DENBORA

ICEBERGAREN AZPIALDEAN

ESPAZIOAREN ERALDAKETA, HELBURUA ETA AITZAKIA ALDI BEREAN

Elkartokik elkarbizitzan eta balio barneratzaileetan oinarritzen diren espazioak gauzatzea bilatzen du, baina, espazioaren eraldaketarako programa ez ezik, prozesu pedagogikoa eta parte hartzekoa ere sortu du: ikasleak beraiek dira eragileak, eta era parte-hartzailean eta elkarlanean lan egiten dute.

Honela, espazioaren hobekuntza eta eraldaketa helburua eta aitzakia da aldi berean: jolastokiaren eraldaketa-prozesua proiektuaren oinarrian dauden ideiak edo zutabeak lantzeko aukera bezala erabiltzen da.

Programaren oinarrian dauden 4 ideia nagusiek lan egiteko modua antolatzen dute, eta nahitaezko baldintzak dira:

GENERO BERDINTASUNA ·
I.
GENERO BERDINTASUNA

Espazioen izaera fisikoak, normatiboak eta sinbolikoak gizarteak ezarritako genero rola indartu ditzake. Hori dela eta, proiektuak genero aniztasuna eta berdintasuna indartuko duten espazioak sortzea bilatzen du, rola lausotu eta bestelako harremanak praktikan jartzeko.

ESPERIMENTAZIOA ·
II.
ESPERIMENTAZIOA

Bide berriak eta lan egiteko modu berriak probatzen direnean, irudikatzen ez diren emaitzak lor daitezke. Hori dela eta, programak eskola barruko dinamika eta lan egiteko moduetan berritzea du helburu, espazioa eraldatzeko erronkari bestelako erantzunak topatzeko asmoz.

KOLEKTIBITATEA ·
III.
KOLEKTIBITATEA

Espazioen izaera, erabilera eta dinamikei eragitea ez da egun batetik bestera gainditu daitekeen erronka. Hori dela eta, proiektuarekiko ardura, bultzada eta sustapena, parte hartuko duten agenteen artean (eskola-komunitatea eta kanpoko laguntzaileak) aurrera eramatea funtsezkoa da, prozesua iraunkorragoa egin eta eskolan benetako eragina izango duen eraldaketa bermatzeko.

PARTE-HARTZEA ·
IV.
PARTE-HARTZEA

Umeak sormen gaitasun handiko izakiak ez ezik, eskubidedun subjektuak ere badira. Hori dela eta, programak hurrei ahalmena eta protagonismoa ematea bilatzen du, eta, horretarako, hausnarketan, sorkuntzan, erabakiak hartzean eta esku hartzean hurrei hitza ematen die eta testuinguru seguruak eta horizontalak eskaintzen dizkie.






P R O G R A M A R E N 4 Z U T A B E A K

GENERO BERDINTASUNA

ESPERIMENTAZIOA

KOLEKTIBITATEA

PARTE-HARTZEA



I.


II.

III.

IV.

PAUSOZ PAUSO BURUTZEN DEN PROZESUA

Ardatz horietan oinarrituta, programa garatzeko prozesua hiru fase edo momentutan egituratzen da:



AZALPENA

Espazioa eta bertako egunerotasunean gertatzen diren dinamikak aztertu eta ulertzea du helburu. Horretarako, espazioaren izaera fisikoaz gain, jolastokiak sortzen dituen jarrera eta sentimenduak behatu eta aztertzen dira eta horien gainean hausnartzen da.

Gainera, umek espazioaz eta bertako erabileren arteko harremanaz jabetzea bilatzen da. Horretarako, umek besteen erabilerak eta egoerak entzun eta ulertzeko eta norberarenak adierazteko momentuak ahalbidetuko dira. Honela, indarguneak, ahuleziak eta, batez ere, jolastokiaren inguruko lehentasunezko beharrak eta nahiak identifikatzen dira.

Behin betiko esku-hartzea eta neurriak adostea du helburu. Horretarako, umeen nahiak eta beharrak abiapuntutzat hartuta, jolastokiari begirako ideiak eta aukerak imajinatu eta frogatu, iritziak jaso, eta era kolektiboan diseinu bat sortzen da. Horretarako, umek ideia berriak eta eraldatzaileak irudikatzeko aproposa den testuinguru librea sortzea bilatuko da. Ostean, proiektu komuna adosteko, eztabaidarako irizpide ezberdinak kontuan hartuko dira (baliabide ekonomikoak, teknikoak, segurtasuna, proiektu pedagogikoarekiko koherentzia, umeen nahien ordezkagarritasuna, etab.), eta, honela, proposamen zehatzak eskuratuko dira.

Espazioaren izaera fisikoan, normatiboan eta sinbolikoan esku hartzea du helburu. Horretarako, aurreko fasean adostutakoa espazioan gauzatuko da modu parte-hartzailean eta elkarlanean.

HAUSNARKETA, SORKUNTZA ETA ELKARRIZKETARAKO DENBORA

Espazioa eta bertan gertatzen diren harremanak eraldatzeak dakarren erronkari aurre egiteko, prozesuan zehar sortzeko eta parte-hartzeko saioak, momentuak eta topaketak antolatzen dira, eskola-orduetan eta umeekin, batez ere.

Sortu eta parte hartzeko espazio eta momentu horietan, funtsezkoa da elkarrizketan jarduteko eta agertoki berrietara iristeko testuinguru aproposa sortzea. Izan ere, erabiltzen diren dinamika eta metodologiak, haurrekin eta gainerako parte-hartzaileekin testuinguru horizontalak sortu nahi dituzte. Gainera, erronkari ganoraz heltzeko, jolastokiaren egoera eta beharrianen gaineko aurreiritziak alde batera uzten dira eta ikuspuntu irekiarekin lan egiten da: enpatia eta testuinguruaren ulermen sakona garatzen dira, galdera berriak planteatzen dira, hobekuntzaren ordez eraldaketa lortu nahi izaten da eta iterazioari beldurra kentzen zaio, prozesuan zehar aurrera eta atzera eginez.

Prozesua parte-hartzailea den heinean, umeei hitza ematen zaie, banaka nahiz taldeka beraien ikuspuntua eman dezaten. Hala ere, iritzia eman ez ezik, erabakitzeko ahalmena ere aitortu egiten zaie

(helduek lagunduta eta egiaztatuta bada ere) eta parte-hartzeko modu ezberdinak eskaintzen dira, gainerako agente eta pertsonek ere parte-har dezaten: unean-unean iritzia emateko aukera, proposamenak elkarrekin sortzeko denbora eta erabakiak hartzeko saioak, besteak beste. Mekanismoak eskaintzearekin batera, eskola barruko iritzi eta ikuspuntu anitzak eta ugariak antolatzeko lan egiten da: diseinu, sorkuntza eta parte-hartze momentu horietan sortu eta jasotzen dena partekatzeko, eta ideiak antolatu eta bahetzeko estrategiak erabiltzen dira.

Prozesuan, parte-hartzea ez ezik praktika artistikoen presentzia eta laguntza ere daude. Arteak, eta bere ikuspuntuak zein praktikek, prozesua zeharo aberasten dute; batetik, errealitateari begiratzeko eta era kolektiboan gauzak egiteko modu berriak eskaintzen dituelako, eta bestetik, eskolako ohikeriatik kanpoko lengoaiak eta moduak ahalbidetzen dituelako. Praktika artistikoen ekarpena, beraz, ez da eraldaketa fisikoaren momentuan bakarrik gauzatzen; prozesu guztian zehar eta erronka anitzei erantzuteko orduan ere funtsezkoa da.

ICEBERGAREN AZPIALDEAN

Prozesua aurrera eraman ahal izateko baliabideen, beharren eta denboraren kudeaketa egokia egitea funtsezkoa da. Eskola barruko pertsona eta agente ezberdinen artean (adibidez, zuzendaritza, hezkidetzatzaileak, guraso elkarteak, tutoreak, begiraleak...) ardurak eta lanak banatzeari begira, bakoitzaren rola zehazten da eta, horrekin batera, koordinatzeko moduak, esparruak eta horien maiztasuna zehaztu egiten dira.

Proiektuaren kalitatea eta izaera sortzailea bermatzeko, espazioa eraldatzeko konfigurazioan eta umeekin egingo diren ekintzetan (tailerrak, parte-hartzeko ekintzak, etab.) laguntza emango duten profesionalak integratzen dira: artistak, bitartekariak, diseinatzaileak edo hezitzaileak, besteak beste. Hasieratik integratzen dira prozesuan, ekintzak eta prozesuaren baitan gertatuko dena pentsatzeko eta antolatzeko.

Horiekin ere erantzukizunean eta elkarsorkuntzan oinarritutako harremana eraikitzea bilatzen da eta, horretarako, laguntzaileak koordinazio esparruetan integratu ohi dira, proiektuan eskola-komunitate barruko agente baten antzera parte-har dezaten.

